2026KO URRIAREN 30A

begoñazpi

EBI elizbarrutiko ikastetxeak

begoñazpi ikastola



GOGOETA EGINEZ, GATAZKAK KONPONDU!

Lehen Hezkuntzako 3. mailako ikasleek, Erlijio ikasgaian role playing dinamiken bidez, gatazkak modu baketsuan konpontzeko lan egin dabe.

GEHIAGO

BARDINTASUNA ETA ALKARTASUNA ● **KOMUNIKAZIOAREN PROZESUA** ● **DOREMIKA ANTZEZLANA**

Enpatia eta alkarrizketa izanik ikasiko dogu gatazkak konpontzen

Begoñazpi Ikastolako Lehen Hezkuntzako 3. mailako ikasleek, Erlijio ikasgaian role playing dinamiken bidez, gatazkak modu baketsuan konpontzeko lan egin dabe. Egokiera bakoitzean zelan jokatu eta urtenbideak zelan emon aztertu zein jakiteko hainbat egoera bizi eta antzeztu dabez. Jarduera honek Nazioarteko Batxilergoko urteera-profilaren funtsezko trebetasun bi, hau da, gogoeta eta arrazoiketa garatzen lagunduko dau.

INFO GEHIAGO | MÁS INFO





Bardintasunagaitik, saria

Bizitegi Elkarteko ordezkariak Ikastolara etorri ziran, 'Kamera martxan tratu onaren alde' argazki-lehiaketako ikasle irabazleei saria emoten.

INFO GEHIAGO | MÁS INFO



Boluntariotza 'Deituak' programaren barruan

Bizitegi Elkarteak eta Bizkaiko Caritasek "Deituak" programaren barruan, Batxilergoko 1. mailako ikasleei hainbat boluntariotza-aukera aurkeztu eutsiezan.

INFO GEHIAGO | MÁS INFO



Komunikazioa, funtsezko trebetasuna Begoñazpi Ikastolan

Begoñazpi Ikastolan ikasleek komunikazio-prozesua pentsamendu-errutinen bidez landuko dabe. Jarduera hau Nazioarteko Batxilergoko urteera-profilaren ezaugarri edota berezitasunen, besteak beste komunikazioaren garapenean datza.

INFO GEHIAGO | MÁS INFO



'Doremika' musikal interaktiboaren parte izan gara

Begoñazpi Ikastolako Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleak Bilboko BBK aretoan izan dira, Bilboko Akordeoien Orkestra Sinfonikoak eskainitako kontzertu didaktikoa dan Doremika ikuskizunaz gozatzen.

INFO GEHIAGO | MÁS INFO